

HERNANIKO KALE LITERATURA

Kultur ekitaldi askok kutsatu egiten dute zerbait, kopiatu edo egokitu edo plagiatu edo itxuraldatu daitekeen modu bat, gogo bat, saretze bat. Baina hori beti ez da gertatzen agerian, komunikabideetan edo sare sozialetan. Batzuetan, literatura ahoz gorako bidean dator bueltan, eta ahoz aho kutsatzen ditu hitzarekiko grinaren birusak. Agian horrelako zerbait gertatu da Hernaniko Kale Poesia ekimenarekin; hasiera batean ez zuen oihartzun handirik bilatu, orain ere ez, baina egiten ari den lanaren lagina topatu (eta kopiatu edo egokitu edo plagiatu edo itxuraldatu) daiteke hkl.eus webgunean.

2016ko apirilaren 27 batean hasi zen dena. Lagun talde batek Xabier Montoiaren *Anfetamiña* liburuaren irakurketa irekia antolatu zuen Hernaniko Goiz-Argi tabernan. Publikoan zeuden HKLren berri eman diguten Josu Landa eta Antonio Casado da Rocha ere. Haien esanetan, Andoni Tolosa «Morau» izan zen ekimenaren bultzatzailea, baina datu batek zein besteak ez diote antza gehiegi axola. Gauza da hiru izen horiek eta beste hainbat irakurketaren ostean poteatzen aritu zirela, esperientziaren gozamenak akuilaturik, eta keinu horrekin berarekin abiatu zela HKL izango zena; literaturaren zuzeneko irakurketak, gozamina, espiritu apur bat ganberroa eta elkartzeko gogoia. Emanaldi hartatik zazpi hilabetera etorri zen bigarren saioa, eta modu horretan ohitura finkatu zen: gutxienez urtean bi irakurraldi antolatuko zituzten handik aurrera: «Emanaldi hartan ibili zen Ibon Zapien ere. Berak denda bat dauka Hernanin, eta jende asko pasatzen da bertatik. Horrela, bera bilakatu zen lotura».

Bigarren saioak Ana Malagonen testuak izan zituen oinarri, «Hernaniko bakardadearen mapa» tituluarekin. Saio ibiltaria izan zen hura, eta horra, nahi gabe aurrerantzean errepikatuko zen beste ezaugarri bat finkatu zen: tarteka ibiltariak izango ziren saioak. Kasu hartan, Malagonen testuak lagun, Hernaniko toki bitxi eta ezezagunak zeharkatu zituzten: «Maitaleek elkar musukatzeko bilatzen dituzten txoko ezkutatuak», baina era berean espazio publikoak direnak. «Lehenengo saioaren osagaia izan zen literatura kolektiboan irakurtzea, ondo pasatzea, baina bigarrenaren horri gehitu zitzaion euskarazko literaturak nolabait espazio publikoa okupatzea», azaldu dute. Bigarren saioa euripean eta ilunpean egin zuten, baina hala ere gozamenak lotu egin zituen, eta urtean gutxienez kaleko ekitaldi bat egin behar zela pentsatu zuten, barrukoekin tartekatuz eta orekatuz.

Hastapenetik «kale» hitzak modu argian markatu zuen bidea: hirugarren saioa ere ibiltaria izan zen, eta Anariren *Epilogo*a izan zuten ardatz. Ez bataz ez besteak ez dute argi noiz hartu zituen ekimenak izena eta izana: «Laugarren edo bosgarren saioan konturatuko ginen kolektibo bat ginela. Gehienok aurretik ez genuen elkar ezagutzen, baina irakurraldien artean hurrengo antolatzeok elkartu behar ginen, pote bat hartu, eta ekimenetik ekimenera taldea finkatzen joan zen. HKL mobida ezberdinen intersekzio bat da, literaturak, libertimenduak eta lagunartekoak nolabait definitzen duena». Biek aipatu dute uneren batean erregaiaren ideia, «Ondo pasatzea izan da beti gasolina».

Argazkia: HKL

HKLren webgunea altxorra da literaturazalearentzat: bertan argi eta garbi ikus daiteke urtero antolatu dutena, baina horrez gain eskuragarri daude saioak prestatzeko egin izan dituzten antologiak, eta baita Morauk saioetarako prestatutako playlistak ere, ekitaldian zehar orgatxo batean jarritako soinu-ekipo eramangarri batekin eskaintzen dutena. Auzolan-metodologia bat izan da hasiera-hasieratik: «Taldekide bakoitzak zerbait, gaitasun bat, superbote bat ekartzen du antolakuntzara».

Webgunea altxorra izanik ere, hasiera-hasieratik ekimenari oihartzun larregi ematea ekidin nahi izan dute. Ahoz aho zabaltzen ziren hitzorduak batez ere, herrian bertan afixa batzuk jarrita, baina bestelako pretentsiorik gabe. «Jende askoren aldetik beti egon da kontraktasun handi bat promozioa egitearen gaiarekin, eta, adibidez, entrebista hau egitea duela urte batzuk ezinezkoa izango zen. Hau egiten dugu gure artean ondo pasatzeko, Euskal Herriak ez du zergatik jakin behar hori». Umorez egiten dute kontakizuna eta autoerretatua: «Zorionez, Hernanin masa kritikoa nahikoa topatu dugu hau egiteko, esperimentatzeko eta oso ondo pasatzeko. Eta, bueno, modu nahiko organikoan kanpoko jendea ere etorri izan da». Hasieratik argi eduki dute ez zutela ekimena antolatzeok diru-laguntzarik eskatu behar: «Kultur etxe batetik edo kultur sistematik antolatzen hasiz gero, betebeharrak sentitzen duzu aldiro egiteko. Guk ez dugu subentziorik eskatzen, beraz, ez diogu inori konturik zor. Orduan, ez dugu publizitate behar. Kartelak egiten ditugu eta jartzen ditugu, gustatzen zaizkigulako kartelak genero gisa».

Irakurle izateko izen-ematea irekia da, normalean 20-40 lagunek parte hartzen dute. Aurretik sarean eskegitzen dute edukia izan daitekeena, eta jendea aleak erreserbatzen hasten da haiek irakurtzeko. Saiotik saiora parte-hartzaileen eta entzuleen profila zabaltzen joan da, eta zenbaitetan gaztetxoek ere parte hartu izan dute: «Hernaniko institutuko literatura-irakasleekin harreman ona dugu, eta hango ikasleak etorri izan dira. Zoragarria izan da belaunaldi arteko nahasketa hori». Saiotik publikorik fidelenak eduki zuen eboluzioarekin ere harrituta daude: «Inpresionantea izan da nola joan den hobetzen kalitatea. Lehenengo ekitaldian jendea latsa ematen zion irakurketa edo deklamazioa egitea; hasieran jende gehienak ez du irakurri nahi izaten, eta irakurri nahi ez duenak ez du irakurtzen noski, posible da entzutera joatea bakarrik; baina gertatu da gero eta jende gehiago animatzen hasi dela eta erridikulua egiteko beldur hori galtzen joan dela. Bat-batean bat kantuan hasiko da, besteak auskalo... Hori garaipen handi bat izan da, oso zaila delako jendea animatzea, famosilloa edo kultureta baldin bazara errazago animatzen zara».

Saio bakoitzeko gaiak eta antologiak kolektiboki adosten dituzte: Ura, Haragia, Lapurreta, Fabrika, Hilekoa... Askotarikoak izan dira edukiak, baina tarteka egin izan dituzte monografikoak ere egile baten bueltan, eta haien lanaren interpretazioak egin izan dituzte. Haien artean, Kae Tempesten liburuan oinarritutakoa, edo azkenaldian Mari Luz Estebanen *Haragizko erreformak* liburuan oinarritutakoa: «Testuen aukeraketan, noski, badaude irizpide



HKLn badaude osagai ganberro bat, osagai ludiko bat eta osagai militante bat, aldi berean orekan.

batzuk, bilatzen dira orekak: euskaraz jatorriz idatzitakoak, itzulpenak, emakumeek idatzitakoak... Eta gero, noski, gure gustua». Gaiaren arabera, batzuetan parte-hartzaileek beren testuak ere idatzi ahal izan dituzte.

Gustua aipatzen hasita, bada azkenaldian gero eta protagonismo handiagoa hartu duen beste ezaugarri bat: ludikotasuna. Hainbat saiotan «Urdaiazpikoa eta poesia» izan dute ardatz, hau da, taberna batean elkartu eta urdaiazpiko bat jatearen bueltan egitea saioak, bide batez taberneko elkargune gisara duten garrantziari fokua emanez. «Porrak» ere egin izan dituzte, entzuleek irakurritako testuen inguruko galderekin, adibidez. Lerro hauek idazteko unean, azkeneko saioetako bat «Poemolya: ludopoesia saio bat» izan da, Itziar Ugarteren *Gu gabe ere* liburua ardatz hartuta.

Beren ibilbidearen harian, dena den, izan dira une zailak ere. 2020ko pandemiak, eta haren ostean etorritako arauak eta egoeraren kudeaketak, kolokan jarri zituen jendarteko hamaika ekimen, haien artean kulturakoak, zer esanik ez kalean egiten zirenak. HKLkoek pandemiaren urterik gogorrean hiru saio egin zituzten: lehenengoa telematikoki, taldekide bakoitza bere etxean, gaia «Isolamendua» zela; bigarrena hauteskunde-egunean muntatu zuten, «Desobedientzia» izeneko, ez hauteskundeekin lotuta baina bai hauteskunde-egunean; hirugarrena, pandemiatik ateratzear zirela, «Matrioxka», Maialen Lujanbioren testuekin. Hurrengo, «Hilekoa», parke batean, musukoekin eta aulkiak distantziara jarrita egin zuten.

Egoerak osagai berri bat ekarri zien, aurreikusten ez zutena: autoritatearekin negoziatzeok batean sartu beharra: «Amorragarria batzuentzat, azkenean baimena eskatu behar zenuelako kalean zerbait egiteko. Lehen esan dugu ez dugula dirulaguntzarik kobratu nahi eta ez dugula kobratu, baina kasu horretan behartuta egon ginen autoritateekin negoziatzera baimena lortzeko, aulkiak lotzeko eta abar, eta abar, eta abar. Eta orduan, adibidez, «Desobedientzia» rena alegalki egin genuen, hauteskunde-egun batean». Egoerak egoera, laguntzarik jaso ez arren truke moduan

kolaborazioak egin izan dituzte: «Udalak behin txutxu-trena utzi zigun ibilbidea egin ahal izateko». Umorez heltzen diote etengabe kontakizunari: «Hori izan zen sektore *senderistaren* eta *sedentaristaren* arteko talka sortu zelako. Ze, klaro, «Fabrika» gaia jorratzeko Hernani batean kanpoaldean dagoen Zikuñagako paper-olara joatea ezinbestekoa zen, eta gero beste ez dakit nora... kristoren kilometro pila. Orduan, sektore *sedentaristak* planteatu zuen, zergatik ez dugu egiten garraio publiko batean? Eta, orduan, txutxu-trenarena etorri zen. Eta bete egin zen. Hiru bagoiak». Pandemiak eta hari loturiko arauak kudeatu beharrek barne-gatazkak sortu zituzten, eta arrastoa utzi zuten; saioaren bat bertan behera ere utzi zuten, «Ura»ren inguruko urdaiazpikoa eta poesia saioa, hain zuzen ere, birusaren oldarraldien garaietako ezadostasunagatik: «Saiatu ginen desobediente izaten ahal izan genuen edo nahi izan genuen punturaino. Oso interesgarria izan zen prozesua». Hari horretan, krisiak izan dituzte, edozein kolektibotan gerta litekeen bezala: «Izan ditugu bi krisi oso gogor, baja batzuekin, zeinen ondorioz gure arteko isiltasun gehiegi egon baitziren, baina talde bezala gai izan gara horri buelta emateko». Proiektuaren izaerak berak izan dezake zerikusia horretan: «Erritmoa ona da. Urtean bi gauza egiten badituzu soilik, bidean hutsuneak izateko eskubidea hartzen duzu, nolabait».

Besteak beste, Oiarzungo Poesia Egunean erabili izan dituzte haien antologiak, bidegorriko errezitaldietarako beren gaitegia kopiatuz: «Hernani ez da berezia zentzu horretan. Euskal Herriko edozein herritan egin daiteke hau. Behar duzun gauza bakarra da jendea eta poteatzea. Hori edonon egin daiteke eta sozializatzeok modu bat da, literaturaren inguruan eta euskararen inguruan. Baina funtsezko osagaiak potenteak dira: espazio publikoaren okupazioa, euskal literatura erlikia gisa ez hartzea eta erabiltzea tresna bat bezala, uztartzea nolabait kanonizatuta dagoen literatura eta herri-sorkuntza. Batzuek gure testutxoak idatzi eta irakurri izan ditugu, eta hori ere kale-literatura da. Badaude osagai ganberro bat, osagai ludiko bat eta osagai militante bat, aldi berean orekan».